

**IZATEA GARRANTZITSUAGO  
EUKITEA ETA EGITEA BAINO**

**1**

Gizonaren izatea  
zer dan ondo jakitea  
ez da guretzat kaltea.  
Beste batzuek zabaldu deuste  
niri munduko atea;  
kontuz ibili, maitea,  
laster datortzu joatea;  
hau da gutzat erbestea.

**2**

Hau da gaurko dotrina:  
"Egin daigumn ahalegina  
batzen ondasun, txintxina"  
Eginak egin, eukiak euki,  
dana ez da atsegina;  
dana ez da etekina,  
gizona ez da makina.  
Gizonok gizon bagina!

**3**

Ez ahaztu zer dan gizona,  
bere izate sakona,  
Jaungoiko Jaunak emona:  
Ez da piztia, ez aberea,  
gizona beti pertsona.  
Zer dan berarentzat ona?  
Berari dagokiona;  
orduan bai zoriona!

**4**

Bizian Gora jarduna  
da erakutsi deuskuna  
eta argitu zentzuna.  
Ni zahartzaroan konturatu naz  
nun datzan gizontasuna:  
Honek bete deust hutsuna,  
emon bake, osasuna.  
Hau da zoriontasuna!

**5**

Lehengo zuria, gaur more,  
lehengo satsa, gaur balore;  
lehen aberats ta gaur pobre...  
Bizian Gorak dana aldatu deust  
neurri eta kolore.  
Badot nahibeste adore,  
badot poz ta umore;  
gaur bizi naz dotore.

**6**

Esan dot esatekoa,  
dana guzurrik bakoa;  
hustu dot neure kolkoa.  
Zein lagun ona agertu jatan  
zahartzaroan Jaungoikoa!  
Aita bihotz betekoa,  
Adiskide hurrekoa.  
Ni naz zorionekoa!